berriak Triforio -tik

98. Zkia.
2021eko urria

araba álava

Udako bisita-kopurua, pandemia aurreko mailan



Uda bisitariak berreskuratzeko garaia izan da Santa Maria Katedralarentzat, 2019. urtearekin alderatuta kopuruak % 10 egin baitu gora. Zehazki, uztailean eta abuztuan 22.500 bisita izan dira, hau da, osasun krisia hasi aurreko maila berreskuratu da.

Bisitari gehienak beste autonomia-erkidego batzuetakoak dira. Aurten, Katalunia eta Valentzia nabarmendu behar dira, leku horietako bisitari-kopurua nabarmen hazi baita, Madril eta Andaluziakoak ahaztu gabe, Estatu mailakoen artean bisita-kopuru handia ematen jarraitzen baitute. Atzerriko turismoari dagokionez, gehienak Frantzia, Italia eta Alemaniatik datoz.

Era berean, irailean jasotako zifrek normaltasuna berreskuratzeko joera berresten dutela dirudi.

Domina baten benetako balioa

Arabako Zaharberritze eta Kontserbazio Zerbitzuak historia interesgarri bat zabaldu du berriki twitterreko bere **@RestauraAraba** kontuan. Katedralean egindako esku-hartze arkeologikoetako batean berreskuratutako domina txiki bat du protagonista, eta berreskuratutako objektu guztien garrantzia behar bezala baloratzeko balio du, baita txikienarena ere.

Twitterreko harian aipatzen den bezala, aurkitutako domina "nahiko hondatuta dago, gainazala oso higatua du eta, oro har, metalak korrosioaren eragin handia du". Baina garrantzitsuena mikroskopioan aurkitu zena da. "Argazkietan ikus dezakezuena hildako pertsonaren ileak dira (agian, bere eskukoak edo bularrekoak). Mineralizatuta geratu ziren dominaren gainazalean. Kobrearen korrosio -produktuek biozida gisa jardun zuten eta deskonposatzea saihestu zuten, gaur egun arte gordez."

Dominatxo obalatua, kobre-oinarriko metalez egina, Jesus Alonso tratatzen ari da Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuan, eta bertatik gogorarazten dute bere balioa gehiago datzala gordetzen duenean, bere horretan baino. "Garbiketa sakonago batek ez luke bere irakurketa erraztuko, eta kontserbatutako hondakin biologikoak galduko lirateke. Horregatik, oso garbiketa mugatua egingo da, eta egonkortzeko eta babesteko tratamenduak egingo zaizkio. "Ileek salbatutako" aurkikuntza bitxia da, kontserbatzeko modukoa eta informazioa ere ematen duena", adierazi dute **@RestauraAraba**-tik.






Argazkia: Pablo Neustadt

Done Jakue Bideko Musikak irekiko du **Aitzina Folk 2021**

Santa Maria katedralak Taracea taldearen kontzertua hartuko du datorren urriaren 29an, Aitzina Folk jaialdiaren edizio berri baten aurkezpen gisa. Ikuskizun horrek tradizioaren eta orainaren arteko ibilbidea proposatuko dio ikus-entzuleari, jazzaren lengoaia eta munduko erritmoak ardatz hartuta.

Jendeak sarrera librea izango du lekua bete arte, eta Taracearen proposamenarekin Erdialdeko Europatik Santiagora bidaiatuko du, Frantziatik pasatuz eta Montserraten geldialdi bat eginez, Europa osoan zehar bidaiatu eta hizkuntza askotan abestu zuten erromesen errepertorio tradizionala gogora ekarriz.

Ondare historiko-arkitektonikoari buruzko jardunbide egokien Eskuliburuaren aurkezpena

Santa Mariako elizpeak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Ondare Historiko-Arkitektonikoaren Zerbitzuak argitaratutako "Arabako ondare historiko arkitektonikoari buruzko esku-hartzeen jardunbide egokien laburpena" lanaren aurkezpen-ekitaldia hartu zuen irailaren 16an.



Eraikuntza historikoetan egindako esku-hartzeetan oinarritutako eskuliburu bat da, profesionalei arau-esparru bat, nazioarteko hainbat profesionalen ikuspegia eta Zerbitzuaren esperientzia luzean eskuratutako jardunbide egokiak eman nahi dizkiena. Argitalpenak 123 orrialde ditu, eta horietan ondasun higiezin babestuetan esku hartzeko prozesuari aurre egiteko gakoak azaltzen dira.

Eskuliburu honen bidez, gainera, Arabako ondare aberatsaz kontzientziatu eta berau ikusarazi nahi da. Ondare hori, hurbiltasunagatik eta egunerokotasunagatik, batzuetan oharkabean gera daiteke herritarrentzat.

"Zatoz bidaiatzera" kanpainak Santanderren eman dio amaiera bere ibilbideari

Arabako Foru Aldundiak hilabete honetan eman dio amaiera Santanderren "Zatoz bidaiatzera" turismo-sustapenerako kanpainari. Kanpaina horrekin, Araba jomuga turistiko gisa aurkeztu da 250 bidaia-agente, touroperadore eta kazetari espezializatu baino gehiagoren aurrean, Espainiako hiri nagusietan.

"Zatoz bidaiatzera" kanpainak, Santa Maria Katedrala Arabako aldarri nagusietako bat bezala aurkezten du. Joan den maiatzean abiatu zen Sevillan eta Malagan. Ondoren, Bilbora, Madrilera, Valentziara, Bartzelonara, Zaragozara, Valladolidera eta Logroñora joan zen, ibilbidea Kantabriako hiriburuan amaituz.

In Memoriam

Emilio Ipinza Gil, **Manuel Iradier Abesbatzaren sustatzaile eta zuzendaria**, Santa Maria Katedralarekin oso lotua, irailaren 17ko goizaldean hil zen, 88 urte zituela, gaixotasun luze baten ondoren. Arabako musika eta abesbatzen munduko pertsonarik maitatuenetako bat izan zen, eta merezitako aintzatespenak jaso zituen bere ibilbidean zehar, "Urrezko Zeledon" besteak beste. Gure doluminik sentituena, Arabako abesbatzen musikan eta kulturan arrasto ezabaezina utzi duen pertsona bat galdu delako.

